

# Perigolan

Orioko Herri Ikastolako aldizkaria / 2014ko urtarrila / 11. zenbakia



## Bihotzeko Ikastola



“Haurra, bera zaintzen duten guraso eta hezitzaileekin komunikatuz hazi eta garatzen da. Beraz, Haur Hezkuntzan, guraso eta hezitzaileen arteko komunikazio egokiak berebiziko garrantzia du”.



“Haur Hezkuntzako espazioak etxeko espazioaren jarraipena izan behar du, eta horrela ulertu behar dute, bai gurasoek, baita hezitzaileek ere. Bi espazio horien arteko elkar komunikazioak umearengan jarraipen imaginarioa sorrarazten baitu, gurasoekiko atxikimendu sistemari kalterik egin gabe”.





“Etxeko espazioaren jarraipena egiteko, gela barruan sukaldetxoak izan behar ditugu, lotarako eta lasai egiteko espazioak, higiena eta esfinterrren kontrola errazteko komun eta iturriak...”




“Umea ikastetxean dagoen bitartean, familiartekoen presentziak ohikoa izan behar du gelan: gurasoek beste gurasoekin hitz egiteko; irakasleak, libre egonez gero, eurekin ere solas egiteko; edota ikastetxeko ekimenen batean parte hartzeko”.







“Haur Hezkuntzako ikastetxeak herriko komunitatearen isla izan behar du; plaza bat, herriaren erdigunean aurkitzen den plaza bat, esaterako. Bertan elkartuko dira haurrak beste gurasoekin, dendariekin, artisauekin, arrantzale eta baserritarrekin, jubilatuekin... Ondorioz, haurra pertsona eta komunitateko partaide gisa haziko da”.




“Espazio- eta pedagogia-antolakuntzak askatasuna eman behar dio haurrari bere sormena garatzeko. Horrenbestez, espazio horretan, helduen eraginak pixkanaka gutxitzen joan behar du; hala, haurrak aukera handiagoak izango ditu hainbat konpetentzia garatu eta esperimentazioan aritzeko”.





“Umearen segurtasuna bermatuko duen espazioa beharrezkoa da, baina askotan, gehiegizko beldurraren eraginez, haurren mugimenduak mugatzen dituzten elementuak jartzen dira. Horiek gabe, ordea, haurra askatasunez garatuko da, mugimendu eta aurkikuntza berriak ahalbidetuz”.







BALOIA NIREA DA!

PENALTI!



NAPOLEONEN KONTRA BORROKAN!

“Gizakiok, sen hutsez, espazioa esploratu eta konkistatzeko irrika izaten dugu; ikusi besterik ez dago zenbat abentura liburu idatzi diren. Horrenbestez, Haur Hezkuntzako gelak espazio zabala izan behar du, egitura konplexuez osatuta, haurra bere kabuz espazio bakoitza miatuz eta konkistatuz joan dadin. Espazio ezezagunek umeen sormena pizten dute”.



AMAITU DUGU DENBORAREN MAKINA!

GOAZEN LEHEN GIZAKIA IKUSTERA!



BERTSO TXIKI BAT BOTA NAHI NUKE...

“Gelara sartu eta umeak espazio zabal eta luzea izan behar du aurrean, bere kabuz miatuz joango dena. Gela barruko egiturek hiru dimentsioak lantzeko balio behar dute, beraz, egitura bertikalak eta sakonak behar dira: gora eta behera ibiltzeko eskailerak dituzten dorreak, eskaladarako egiturek, tunel eta zuloak ezkutaketan aritzeko...”



IKUSI ETA IKASI!

...ETA ONDO ENTZUN!



AURRENA ORIO TA, BIGARRENA ZARAUTZ...!





“Horrela diseinatutako espazioek arrazona-  
menduaren, sormenaren, sozializazioaren,  
bitza afektiboaren, zentzumen-motor ko-  
ordinazioaren eta motrizitatearen garapena  
eraztu eta pizten dute”.



[guraso.com](http://guraso.com)

“Rafael Cristobalen curriculum-a oso zabala da (Medikuntza, Neurologia eta Psikiatria Doktoa da), hezkuntza nahiz medikuntza alorretan esperientzia handia baitu. Ginebran bizi zenean, hainbat ospitaletan ardura karguak bete zituen, eta haurtzaroko jokae-rak aztertzen hasi zen. Ikerketa horietan oinarrituta sortu zuen HAZITEGI, Mondragon Unibertsitateko Hezkuntza Fakultateko Haur Hezkuntzara bideratuta dagoen ikerketa proiektua. Azken urteetan Arizmendi Ikastolako zenbait proiektutan dabil murgilduta, eta Guraso Eskola martxan jartzearekin batera, liburu oso interesgarria argitaratu du: **'El niño en la mirada del conocimiento. Una pedagogía de la confianza'**. Liburu horretatik ateratakoak dira aldizkari honetako aipuak”.



# kutxa